Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luisa Ugartemendia Labaka

Getaria, Gipuzkoa
(1909-2011)



Aurkibidea

Biografia



Asteasun jaioa, 2-3 urterekin familia Zizurkilgo baserri batera joan zen bizi izatera. Hamaika anai-arreba zirenez, eta berari baserriko lana ez zitzaionez gustatzen, 17 urterekin neskame joan zen Getariara. 12 urtez Getariano ostatuan lan egin zuen eta udan Zarauzko hoteletan ere bai. 29 urterekin arrantzale batekin ezkondu eta sare-konpontzen aritu da bizi guztia. Getariako "Elkano" zinema ere izan zuten 10 bat urtez.

Zintak

GET-012

- **Proiektua**: Getaria: euskara eta itsasoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-11-14
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Iribar, Jesus - Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Zizurkildik Getariara lanera

- **Erref**: GET-012/002
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Sei ahizpa ziren eta inori ez zitzaien baserria gustatzen. Luisak josten ikasi zuen eta amak Tolosako denda batera eraman nahi zuen lanera, baina berak ez zuen nahi. Neska bat behar zutela-eta Getariara etorri zen. Etorri eta lehenengo egunean mezara joan zen; getariarrei hartu zien itxura.

Transkripzioa
Galdetzailea: Eta esan didazu baserriko kontuak zuri ez zitzaizkizula gustatzen.
Luisa: Inori ez. Sei arreba giñan gu, ta iñor ez giñan basarriyan.
G: Danak sakabanatu.
L: Danok sakabanatu. Ta nik in nun, ba, pixkat gelditu ta josten hasi... Josten ikasi nun, ta amak esan zidan Tolosa eramango niñula denda batea. Dendan, familiarrak zian ta hara, ta nik esan niyon: "Nik ez det nahi Tolosa jun", esan niyon. Ta, geo behintzat, hemen neska falta, koiñatak, ahizpak abisatu zian, bere koiñatak, barreko zea hortan egon nitzan. Horrek nexka bat falta zula, ta hala, honea etorri nintzan. Ta jai batian, basarrira jun nitzan, basarritikan honera etorri nintzan illuntzian, ta geo goizetako mezetako honea. Ta orduan hemen historiya zan, oain jaiotakuak ez dakiye, zea, ama birjiña ekartzen ziñenan eleizetikan zeara, hor nola dao, komonak eta nola dabe, horrea, gordeta, ta geo ez zakiñat ze santokin behintzat etortzen [hitunan Golpeneko] ta... asto-jendia [...] ordun! Enee!
G: Eta zenbat urtekin etorri ziñan?
L: Ba, hamazazpi urte, kunplittuta, hemezortzi.

2. Ezkondu arte jatetxean zerbitzatzen

- **Erref**: GET-012/003
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:05:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
29 urtera arte, ezkondu arte, zerbitzatzen ibili zen Getarian. Udaran hoteletan lanean ibiltzen zen Zarautzen eta Donostian. Zarautzen Nautikoan ibili zen lanean eta oso ondo egon omen zen. Egiten zituzten lanak.

Transkripzioa
- Eta zenbat urtekin etorri ziñan?
- Ba, hamazazpi urte…
- Gazte.
- … kunplittuta. Hemezortzi…
- Eta…
- Urte asko nik hemen, e! Hor…
- Getarianoa?
- Getarianon, bai… Getarianon ez. Azkenengo urtiak hoteletan pasa dittut.
- X: Ze, Zarautzan?
- A, Zarautzan.
- Zarautzen ta Donostiyan.
- X: A! Donostiyan’e bai? A! Ez nakin nik hori.
- Bai, Donostikua…
- X: Udaan, e! Udaan!
- X: Udaran, e!
- X: Udaran, neskame.
- X: Bai. Baiña hemen urtiak… Ezkondu arte, e!
- Bai, bai, bai.
- X: Ordun, ezkondu ziñan hogeita betzi urtekin.
- Bai.
- X: Hogeita beatzi… urtekin. Orduarte, zerbitzen.
- Hamar, hamabi urtian, zerbitzen.
- Bai.
- Hamen, Getaian.
- X: Bai.
- Getaian ez.
- X: Getaidxan…
- Getaian bai, baiña geo behin zeatu nitzan ezkeo, hotelea jun niñun. Hasieran niñunan, ordia, hiru udaratan hotelea jun niñunan, e!
- X: Udaretan bakarrikan.
- Udaran.
- X: Baiño neguan…
- Neguan horrea, […].
- X: Geo neguan atzea honea. Baiño udaran beti Zarautza o hola, La Perla o zeara.
- Bai.
- Ordun Zarautzen zeintzuk zian ordun, e, hotel…
- Zarautzan eon nitzan, ni hotel berriyan eon nitzan, oso jende ona zien.
- X: La Perla ez al zan?
- La Perla ez zan.
- X: Hotel Marina?
- Ez! Nauticuan. Berriya hunan hori leheno, partikularra hunan. Baiña oso… han exkiñan daon, nola, zea dijuan…
- X: Bai, bai.
- Huaxe, hantxe. Han ordun labadorak eta… ordun, uan bezela, ez hunan zeaik eta.

- X: Maletaik ez zeon leheno.
- Gu oso ondo, oso ondo, oso eleante eon giñan. Ta oso jende onak hittunan, Bilbaokuak. Bilbaon hotela zeuken.
- Eta zein izaten zan , zuen lana zein izaten zan hoteletan?
- Hotelen ze lan izaten zan? Goizian ohiak, […] kuartuak, bestiak ohiak…
- X: Geo, zerbitu…

3. Etxe partikularretan neskame

- **Erref**: GET-012/005
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Gerra denboran, Donostiako etxe partikular batera joan zen lanera. Familia ona zen. Gero, beste familia baten ere ibili zen.

Transkripzioa
- Neskame, geo, hemendikan gerra denboran jun nitzan, zeara, Donostira, fameli partikular batea jun nitzan. Eta oso jende ona zian. Eta gizonak bankuan eitten zun lana, ta gauian, billetiak zeatzen, holako, koadro hontako kajak, ta dana dirua. Ta [hari] afariya ematea juten nitzan. Ta geo behintzat, berriz´e... sartu zian [Pasaian], ta etorri zian danak ta, Donostira jun nitzan, beste etxe partikular batea. Baiña han´e oso jende ona zien haik´e, oso onak. Ta hantxe. Ta gero handikan ezkondu.

4. Zizurkilen ezkondu eta Bilbora ezkon-bidaian

- **Erref**: GET-012/006
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:50. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Senarra. Zizurkilen ezkondu ziren eta Amasan egin zuten banketea. Ezkon-bidaian Bilbora joan ziren. Gerraostea zenez, Bilbo txikituta omen zegoen. Euren lagun batzuk eurekin batera ezkondu ziren.

Transkripzioa
- Handikan… Launa’re elkarrekin hazi giñan ta, Casildoneko […], Casildoneko zea, Felix. Ta haik Aian ezkondu hittunan. Ta gu ezkondu giñunan, hemendik jun, ni… hemendik jun niñunan, ta nakeiñ zeara, Zizurkillen ezkondu, Zizurkillen…
- X: Ezkondu…
- …ezkondu…
- X: Ta Amasa.
- … ta Amasa banketea.

- Banketia?
- Bai.
- Ordun, ezkontzea, Zizurkillen, ordun?
- Bai, neure herrira, bai.
- Eta hemen bizi ziñala…
- X: Ta viaje de novios Bilbora, e!
- Bai?
- Bai.
- Kontau hori, kontau.
- Bai! Bilboraiño allatu al giñan? Bai. Bilbo aurreaiño bai, bai. Bilbon, gaiñea, pixkat beherakuan ta ibili giñuan, ta…
- Ordun, viaje de novios eta egun bat o bi, igual izango zian, ez?
- Bai. Ez, gehio pasa giñun.
- Gehio bai, e?
- Ez dakit. Han ibili giñan behintzat, […] ta bestea…
- X: Bueltaka.
- Danak botiak eta txikituta zian baserri guztiyak eta.
- Noiz zan, gerran?
- Gerra bai, gerra.
- X: Gerra ondoren…
- Gerra bukatu ta seittuan ezkondu giñan, bai.
- X: Gerra bukatuta.
- Ta nik ezkondu behar nunian beste lagun horrek'e seittun ezkondu behar zula, Felixek, Casildonekuak.

5. Zizurkildik Getariarako bidea

- **Erref**: GET-012/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:11:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Zizurkil eta Asteasu ingurutik Tolosara joaten zen jendea eta ez kostara, kotxerik ez eta urrun joatea ez zelako erraza. Zizurkildik Getariara joateko Lasartetik Zarautzerakoa trenez egiten zuten.

Transkripzioa
- Eta ordun, jende asko Zizurkildik eta Asteasutik eta, jende asko etortzen zan honea? Zarautz eta Getaira?
- Ez, ez, ez.... Honea ez. Honea… Handik Tolosa gehio da ohitura. Nola dan? Oin ya hau aldrebes eitten da.
- Bai.
- Hor kotxe bat baldin badao, ordun kotxe gutxi zan.
- Leheno nundik etortzen zan? Aiatikan?
- Aiako bire hori ni ezkontzeako […], […] aldapa ta goitik behera.
- X: Baiña […] hua're etorriko zan, ama.
- Ez! Hemen Lasartetik bueltan gu beti.
- X: Lasartetik buelta beti?
- Bai. Baiña ondo. Tranbian sartu Villabonan eta Lasarten atera. Ta Lasarten trenian sartu… Pixkat, bire pixkat bazan, baiña bire ona zan. Eta trenian.
- Zarautza.

- Zarautzaiño.
- Eta… itsasua ta noiz ezautu zenun? Hamazazpi urtekin o leheno?
- Ez… Leheno.
- Leheno, bai?
- Bai, bai. Donostira ta juten, asko juten giñan, ta…
- Bai?
- Bai.

6. Ama urtean behin Tolosara dirua sartzera bankura

- **Erref**: GET-012/010
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Zizurkilgo baserria nola erosi zuten. Ama urtean behin Tolosara joaten zen bankura dirua sartzera. Amaren anaia Kubako gerran egon zen. Handik itzultzean ez zen gauza lanerako eta ez zekienez nola atera bizimodua guardia zibil sartu zen. Anaia honek laguntzen zion amari Tolosara, honek gaztelaniaz ez zekien eta.

Transkripzioa
Luisa: Eta Zizurkilgo basarriya, oain daukena, oso basarri ederra da. Hoi zan matrimoniyo bat ezkondu zan ta seitun gizona hil zitzaiyon andriari. Ta andre hura ezkondu zan geo, mutilla jun zan, andria jun zan zeara, beste basarriko batekin ezkondu zan, oso basarri onea. Eta geo gure aitai saldu etxia eta jun zan Ameriketa mutilla. Oso mutil earra zan. Ta geo gelditu zan gure aita, ta kontentu, halako baserrira etorri zianian.
Alaba: Baiña zure ama juaten zan urtero.... urtian behin ez al zan juten Tolosaa, dirua sartzea? Hango bankura.
Galdetzailea: Bankura?
L: Bai, bai.
Alaba: Eta erderaz ez zakin. Eta anaiya gerra denboran gaixotu edo ingo zan, ta guardia zibil sartu. Ta harek erderaz [jakiña], ez, ama?
L: Bai, bai.
Alaba: Harei laguntzen.
L: Harek hiru urtian, zean, Ameriketan gerra eon zan. Han eon, honea etorri ta gauza ez laneako. Gauza ez laneako. Kuban, Kubako gerran. Ta osasuna're txikiya, ta "Ze in bihar det nik? Lanea juateko gauza ez, baserriyan behiñ'e aritu ez", ta zeara... Guardi zibil sartu. Baiña berak esaten ziñan bere ume bat guardia zibil ikusi baiño Zurriolako zean bota nahiyo zula. Ta [ezin zun] behin ere bildurrik zeai, gizonai, baiño bati mozkor... e(d)anda zeon personai bai, harek esaten zun. Ez zitzaion gustatzen harei, Guardia Zibila.
Alaba: Ta harek laguntzen ziyon zure amai, porke zure amak ez zekin erderaz.
L: Ez, ez.
G: Eta Tolosara laguntzen ziyon bankora?
L: Bai, bai.
Alaba: Bai, baiño bankora, dirua... Horrenbeste umekin in zun basarriya erosi. Emakume latza.

7. Getariano jatetxearen funtzionamendua

- **Erref**: GET-012/012
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:15:02. **Bukatu**: 00:17:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Getariara etorri eta gero gutxi joaten zen Zizurkilera beti lana izaten zuen eta. Getariano nolakoa zen. Apaiz batzuk apopilo egoten ziren eta haiei gora eramaten zieten janaria. Bestela ere bazkari asko ematen zituzten. Antxoa-garaian italiarrak ere etortzen ziren apopilo. Beste hotel bat zegoen beste aldean (Zabalarena). Udaran turistak ere etortzen ziren.

Transkripzioa
- Eta zu honea etorri eta jarraitzen zenun Zizurkillea ta juten?
- Egun […] hotelian. Hemen lana beti, ta jaia ta nola ta? Zea…
- X: Ordun lana egunero […].
- Bai.
- Ta jairik eta ez zan izango, ez?

- Jaiik ez, ez. Gaiñea jende asko izaten zan...
- X: [...]
- Geldik eoten errexa al den! Zea, bazkaldu, gu bazkaltzeko ta kafia hartzen hasten hittuan, hemen, tabernan. Ta ze?
- Eta Getarianon, nolakua zan Getariano ordun?
- Oaiñ, igual-iguala. Holaxe.
- Zan hotela, o kafeteria, o?
- Ez. Euki itten gendun, bost [...] bost eoten zian apopilo, hok hor eoten zian. Eta geo, jana ematen gendun, jana asko ematen gendun. Ta [hairei] gora gaiñea, komedoria, bigarren pisoa.
- A bai? Aparte?
- Aparte.
- Apaizei?
- Apaizak eta, italianuak eta oain, garai hontan. Orduan antxua asko izaten zan eta...
- X: Honea italianuak etortzen hituan...
- Bai.
- Italianuak etortzen zian.
- X: Oain'e etortzen dittuk, e!, baiño gutxiyo.
- Honea etortzen zian sonbreruak jantzita. "Hau eleantia izango diñau, nexka!", guk alkarrei, ta.
- Eta bertan izaten zian apopillo?
- Bai, apopilo, bai.
- Beste hotelik bazan?
- Bai, beste aldian biyak, lehengusuk zian, Bar Getarianokuak eta Zabalako hoik. Hor'e jende asko eoten zan, ta jende asko ibiltzen zan jaten, ta.
- Ta gehienak ze izango zian, e, arrantzakin eta... Italianuak, eta...
- Bai, ta udaran'e jendia ta etortzen zan.
- Bai? Izaten zan, udako turistak eta izaten zian?
- Udaako jendia, bai, bai.

8. Aristokratak udan Getarian

- **Erref**: GET-012/013
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:17:02. **Bukatu**: 00:19:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:
Aristokratak ere etortzen ziren udan. Behin aristokrata baten txoferrarekin barkua zegoen lekura joan zen txibiak kazuelan hartuta. Fabiolaren gurasoak ere Getarian egoten ziren, baita beste zenbait markes ere. Aristokratak karro handiekin eta txofer, lorezain eta behar zituzten guztiekin etortzen ziren.

Transkripzioa
Luisa: Ta udaran´e jendia etortzen zan.
Galdetzailea: Bai? Izaten zan... udako... turistak-eta izaten zian?
L: Bai, bai...
Alaba: Lehenguan... atzo esan ziazun, ba, txibiyakin, mantal zuriya jantzita jun ziñala txibiyak ematea...
L: Bai...

Alaba: Kondia o ez al zan, ba?
L: Ez, kondia ez hunan...
Alaba: Askotan aitu dizut. O duke o...
L: Ez zakiñat, ez.
G: Zer zan, ba, Aldamar edo?
L: Ez, Aldamar ez zan.
Alaba: Honea etortzen zana, yatian-ta ibiltzera...
L: Eta horrek bialdu zun txoferra, eta txibiyak aber bazeuden, eta baietz. Inda bazeuden eta, baietz, eta aber zenbat nahi zun, ba, ta... Etorri zan [berriz ostera] haren kriaua ta esan ziun zenbat txibi ta geo txoferrakin etorri. Txoferra jun hunan nereana bila, ta ni mantal zuriya jantzi, ta txibiyak hartu kazuelan ta, zeara, barkura, moillaa. Ta holaxe.
G: Ta, orduan, jende inportantia etortzen zan, ez?
L: Bai, gurena jende asko etortzen zan...
Alaba: Ama, [...] Fabiolan ama ta...
L: Bai, haik´e udara dana [hementxe pasatzen zeen]. Urtiak eta urtiak etortzen ziela.
G: Fabiola eta, bere gurasoak eta ...
L: Bai, ta gero markesak´e hor eoten zian.
G: Bai, hor parte... karreteratik gorako...
L: Bai, oain obran a(r)i die, bukatzen ez dan obra.
Semea: Oain Museo Balentziaga hori eitten ai dia ta...
Alaba: Eta ordun, amak esaten du, etortzen ziela "con carruaje" etortzen ziala.
G: Bai, e? Karro haundiyekin ta?
L: Bai. Ta txoferrak eta haik etortzen zian zea osua...
G: Eta ze pasatzen zuten, udara guztiya?
L: Bai, bai... abuztua dana, ta leheno etortzen zien. Jardineruak eta beak zittuen danak haik. Jardineruak fijo eukitzen zeen gaiñea.
G: Ta herriyantzako ona izango zan, ez? Dirua-eta ekarriko zun...
L: Bai, bai. Oain, udara, jun dan udara ta [...] baiño zea... udara hobia itten zun gaiñea.
G: Bai?
L: Bai. Jun dan udara txarra gerau da...
Semea: Aurten udara ona in du, ama.
L: Bai?
Alaba: Aurten udazkena´re fenomenala.
G: Eta hondartzara juten ziñan?
L: Bai zea! Hondartzaa?
G: Orduan ez zan izaten holakorik, ez?
Alaba: Ez zun ikasi igeriyan amak behiñ´e. Lana besteikan ez du in.
L: Ta lagunak´e oso langilliak nitun, onak.

9. Jendeak arraina eta mariskoa jaten zuen jatetxean

- **Erref**: GET-012/014
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Hondartzara joateko astirik ez zuen izaten eta ez zuen igerian ikasi. Bere

lankideak ere oso langileak omen ziren. Jendeak arraina jaten zuen asko; bisigua jaten zen gehien eta baita mariskoa ere.

Transkripzioa
- Eta, hondartzara juten ziñan?
- Bai zea, hondartza!
- Ordun ez zan izaten horrelakoik, ez?
- X: Ta ez zun ikasi igeriyan, e!, amak, behiñ'e.
- Ez.
- X: Lana besteikan ez du in, ez zuen in.
- Ta launak'e oso langilliak nittun, onak. […] ez giñan kanbiatu. Bi nexka fijo eoten giñan, ta geo, larunbatetan ta hola ekartzen giñun, faltan, beste nexka bat eo beste, posaderian laguntzeko ta.
- Eta orduan, bazkaiak eta ze izaten zian? Jendiak ze jaten zun gehien?
- Orduan arraia asko izaten zan!
- Arraia?
- Bai. Bixigua asko ordun.
- X: Mariskua're bai, ama, e?
- Ta mariskua ta dana, igual.
- X: Langosta earrak jaten zituen […].
- Langosta, langosta, langosta…
- X: […] ni hilko naixela gure aita baiño langosta gitxio janda, hori fijo!
- Bai! Langosta're asko, langosta asko harrapatzen zan.
- X: Hori fijo.
- Bai, ez? Itsasua aberatso.
- Aberatsaua zan leheno, oain baiño.

10. Sare-konponketa eta tintatzea

- **Erref**: GET-012/017
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:27:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:
Ezkondu zenean zerbitzatze-lanak utzi eta sareak konpontzen hasi zen lanean. Sareak tindatu ere egiten ziren. Sareak algodoizkoak izaten ziren. Horretarako prestatutako lekuan tindatzen zituzten sareak. Gizonezkoen lana izaten zen sareak tindatzea sare handiak izanik emakumeentzat astunegiak ziren eta. Sareak oso estropeatuta zeudenean elkarri laguntzen zioten barku desberdinetakoek. Sare pieza handiak kanpotik ekarri eta bertako emakumeek josten zituzten.

11. Moila lehen estuagoa zen

- **Erref**: GET-012/020
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:31:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia

Laburpena:
Moila lehen txikiagoa zen eta gero itsasoari kendu zioten zatia. Kofradia ingurua nola aldatu zuten.

12. Bapore "txoruak", asko okertzen zirenak

- **Erref**: GET-012/021
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:31:35. **Bukatu**: 00:33:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak

Laburpena:
Lehenagoko baporeak. Baporeen inguruko kontuak; "txorua" zela baporea dio, oker-oker egiten zelako. Behin estropadak ikustera joan ziren eta beldurrez egon ziren baporea itzuliko ote zen. Donostian jokatzen ziren estropadak.

13. Erregieta kalea; zinea izan zuten

- **Erref**: GET-012/023
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:40:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Erregieta kalean ez zegoen ia etxerik Luisa Getariara etorri zenean. Eurak bizi diren etxean zinea zegoen. Albisuk egin zuen zinea eta hark utzi zuenean beraiek hartu zuten. Larunbat eta igandetan egoten zen zinea. Gerora jendea Zarautzera joan zen. Ez zen izan beste zinerik, zine parrokiala besterik. "Elkano" izena zuen zineak. Ingurua nolakoa zen. Erregieta kaleko etxeak kale-baserriak ziren. 2-3 behi izaten ziren etxe bakoitzean. Hala ere, etxe gutxi zeuden.

14. Zinearen funtzionamendua

- **Erref**: GET-012/024
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:40:37. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinea 1956 inguruan eduki zuten beraiek. Herriko mutil batek ematen zituen pelikulak. Beraiek lan egin arren, beste langile batzuk ere izaten zituzten. Jendea gutxitzen hasi zenean itxi egin zuten. Zentsura. Semeak zinearen inguruko azalpenak ematen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com